

# LANBIDE HEZIKETA ESKAINTZA OSAGARRIA TOLOSALDEAN

2023-03-23  
107.6 fm · Ataria.eus



**ataria**

Lanbide Heziketa  
Gehigarria

# Tolosaldeko Lanbide Heziketa sarea

## HAZTEN JARRAITZEN DUEN ESKAINTZA

Geroz eta gehiago dira Lanbide Heziketa sarera jotzen duten ikasleak. Tolosaldean bost ikastetxek osatzen dute sarea eta askotariko zikloek osatzen dute eskaintza. Lanbide bat ikasteko aukera zabaltzen dute eta enprekin duten lotura estua dute ikur. Datozen 20 urteetan Lanbide Heziketak eraldaketa jasango du, eta eskualdeko ikastetxeak ari dira aldaketetara egokitzen.



### IKASTETXEAK

- Don Bosco Lanbide Heziketa Zentro Integratu Publikoa
- Fraisoro Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratu Publikoa
- Tolosako Inmakulada Lanbide Ikastola
- Peñasal Kooperatiba
- Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutu Integratua

Dual orokorra ikasketa ziklo guztira zabaldu dute, hau da, ikasleek lehen eta bigarren mailan egin ahal dituzte praktikak. Lehen mailako praktikaldia 150 ordukoa da eta bigarregoa 360 ordukoa.

Dual intentsiboan ikasleek urtebeteko lan kontratu ordaindua dute. Ikasketen bigarren mailan egiten dira; ikasketen %75 praktiketako enpresan egiten da eta %25 ikastetxean. Beraz, urtebete irauten duen prozesuan ikasleak lana egiteaz gain, ikasten jarraitzen du.

Hori lortzeko eskualdeko Lanbide Heziketako bost zentroek harreman estua dute inguruko hainbat enpresa eta erakundekin. Nippon Gases, Krafft, Algaloop, Agrozumos, Gikesa, Tecnalia, Limousin, Papresa, Gipuzkoako Foru Aldundia, Asuncion klinika, Goienetxe fundazioa... Askok dira Lanbide Heziketako ikastetxetara jotzen duten enpresak.

Abian den ikasturtean 1.213 ikasle daude bost ikastetxeetan eta ez bakarrik Tolosaldeko edo Gipuzkoatik iritsitakoak; Oarsoaldea, Donostialdea, Goierri edo Buruntzaldea eskualdetik ere etortzen dira Tolosaldera, eta baita Nafarroa, Bizkaia eta Arabatik ere. Arrazoi bat baino gehiago egongo dira, baina hizkuntzak zerikusia du, zalantzarik gabe. Deredua da nagusi eskualdeko ikastetxeetan.

Funtsean hortaz, lan munduarekin lotura estua eskaintzen duen formakuntza da Lanbide Heziketan eskaintzen dena, eta lan poltsa zaintzeaz gain, hainbat proiektu garatzen dituzte lan mundua ikasleei gerturatzeko.

Maiatzaren 8tik 26ra egin ahal izango dira zentroetarako aurrematrikulatzeak. Aukeratu ahal izateko gehigarri honetan jaso da eskolen eskaintza guztia eta ostira-lean, martxoak 24, 09:00etatik 14:00etara Tolosako Trianguloa plazan egingo duten VIII. Lanbide Heziketa Azokara gerturatu ahal da.

**D**atozen urteetan Lanbide Heziketan emango diren erronkei aurre egiteko ari dira lanean eskualdeko Lanbide Heziketa sarea osatzen duten bost ikastetxeetan. Bostek dute argi prestatzen jarraitu behar dutela: «Ikastetxe guztion artean erronka berriei aurre egiteko eskaintza zabala dugu, elkarrekin osagarria dena, inguruko behar sozioekonomikoei erantzuteko aukera dugularik». Lan mundura eta ematen ari diren aldaketara ari dira egokitzen eta ikasleak

euskaraz prestatzen dituzte, kalitatezko formakuntza eskainiz. «Lanbide Heziketan helburu nagusietako bat lan munduratzeara bada ere, gure ikasleetako askok ikasten jarraitzea erabakitzen dute, eta Lanbide Heziketako ikasketek unibertsitateko ateak zabaltzeaz gain, bestelako espezializazio formatiboekin jarraitzeko aukera ematen dute», gehitu dute.

Izan ere, Lanbide Heziketako IV. Plana onartu berri da, eta aurreikuspenen arabera datozen 20 urteetan eraldaketa jasango du

Lanbide Heziketak. Plan berriak hiru ardatz nagusi ditu; pertsonak, teknologia eta jasangarritasuna. «Ikasleen prestakuntzari begira teknologian sakontzeko premia jaso du planak, bai eta enpresen beharrei entzutea ere, ikaslea ardatz hartuta ikuspegi humanistatik».

### Dual eskaintza

Hori guztia lortzeko jada martxan dagoen Dual eskaintza ari dira berritzen. Gaur egun Dual orokorra eta Dual intentsiboa daude.



## IKASLEEN GARAPEN INTEGRALA HELBURU

Industria esparrura gerturatzeko aukera eskaintzen du Tolosako Don Boscok. 60 urte baino gehiagoko historia du eta ikasleen garapen pertsonal zein profesionalerako berrikuntza eta aldaketa metodologikoaren aldeko apustu sendoa egiten du.



**D**on Boscon ikaslearekiko gertutasunean, ekintzailtasunean eta inguruko enpresekiko konpromisoan jartzen dute azpimarra, baina ez bakarrik; berrikuntzarako, nazioartekotasunerako eta gizartean errotu ahal izateko erremintak eskaintzeko egiten dute lan. Ikasleak lan esparru erreala salto egiteko prestatzen dituzte, eta %85tik gorako lan merkaturatzea dute. Erdi mailako kimika instalazioko teknikari zikloa dute eta baita kimika industrialeko goi mailako teknikariarena ere.

Hezkuntzari lotutako bi zikloak dira horiek, baina badituzte ere langileei zein langabetuei begirako ikastaro ugari. Eta guzti hori gaur egungo gizartea zeharkatzen duten beste hainbat ikuspegirekin uztartzen dituzte. «Prestakuntza honek, genero berdintasunean, gure ikaslearen garapen integrala eta gure gizarteak zein inguruko en-

presek eskatzen dituzten konpetentzien eskuratzea ziurtatzen du», esan dute. Azken urteetan Lanbide Heziketak hainbat aldaketa izan ditu behar berrietara egokitu ahal izateko eta Don Bosco ez da atzean geratu. Formazio eta lan beharrei ahalik eta prestatuen egoteko eta Garapen Jasangarriko Helburuetara iristeko bestelako erakunde eta eragileekin batera egiten dute lan. Eta horri begira hainbat proiektu garatzen dituzte, hala nola, Iratzetik Paperera izenekoa. Proiektu horren helburu nagusia da papera eskuz egiteari buruzko ezagutza sortu eta transmititzea, gizarte bazterkeria pairatzeko arriskuan dauden pertsonen eta Lanbide Heziketa zikloetako ikasleen ekintzailatza eta laneratzea sustatzen laguntzeko. Badute ere elikagai funtzionalak eta dieta pertsonalizatuak garatzeko proiektu bat ere. Proiektu horrek super-elikagaiak edo elikagai aberastuak barnebiltzen ditu, «herritarren osasuna bermatzeko eta jaterakoan gozatzeko gaitasuna atzean utzi gabe».

Terapia aurreratuetako sendagaiak ekoizteko errealitate birtuala garatzen dute ere. Proiektuaren barruan sendagai horien ekoizpenerako ezinbestekoak diren gela garbietarako sarrera prozesuak simulatzen dituzte. Bukatzeko ilearen ekonomia zirkularra lantzen dute. Hau da, ekonomia zirkularra ardatz hartuta, ile apaindegietan sortzen diren hondakinen berrerabilera eta gutxitzea bultzatzeko prozesua eta sentibilizazioa lantzen dituzte. Ile apaindegietako hondakin kimikoak xurgatuko dituen iragazketa sistema diseinatzen eta proposatzen dute.

### «ERRONKAK TALDE LANA EGINEZ GAINDITZEN DIRA»

**S**alome Aranguren Beristain (Azpeitia, 1980) kimika industrialari ari da ikasten. Lana eta ikasketak uztartea momentu batzuetan gogorra dela dio, baina ez da hartutako erabakiarekin damutzen.

#### Zergatik aukeratu zenuen Lanbide Heziketara jozte?

Nire bizitzako zenbait gertaeren ostean, errutina batean erorita nengoela esan daiteke. Lanean urte asko neramatzen eta auto istripu baten ondoren, bizkarreko arazoak medio, denbora asko izan nuen pentsatzeko. Hor konturatu nintzen ez nengoela gustura neukan bizitzarekin. Enpresa batean egiten dut lan eta bertan ikusten nituen prozesu eta produktu kimikoek nire kuriositatea piztu zuten.

#### Balio izan al dizu ikasitakoak lanean?

Lanean balio izan dit eta aldi berean, lanak balio izan dit ikasketetarako. Egutero produktu kimiko eta prozesu kimiko asko ikusten ditut, eta horrek ikasten ari nintzena ulertzen lagundu dit.

#### Zer esango zenuke Lanbide Heziketari buruz?

Lanbide Heziketari buruz gauza onak baka-



rik esan ditzaket. Nire esperientzia da gaur egungo gazteak lan mundura oso ondo bideratuta ateratzen direla ikastetxetik. Ikasitako gaiak alde batera utzita, beste balio asko erakusten eta lantzen dira: elkarri laguntzea eta gaur egunean hain garrantzitsua den talde lana, adibidez. Lanbide Heziketako erronkak talde lanaren bidez egin eta gainditzen dira, partaide bakoitzak paper bat hatzen du eta oso lagungarria da. Ni adibidez ez nintzen gai jende aurrean hitz egiteko eta orain ez dut

arazorik jende aurrean lanari buruzko hitzaldi bat eskaintzeko.

#### Gustura zaude egindako apustuarekin?

Oso gustura. Ikasitakoaz gain bidean aurkitu eta ezagutu dudan jendeak, irakasle eta ikasleek, izugarri aberastu dute nire bizitza. Hasieran beldur nintzen aspaldi ikasketetan murgildu gabe nengoelako, baina nire aurreiritzi guztiak atzean utzi, eta guztiz kontrakoa aurkitu nuen.

#### Lanbide Heziketa gomendatuko zenuke?

Guztiz. Nire kasuan inflexio puntu bat izan zen bertara bultzatu ninduen. Urte asko neramatzen lanean, nire bizitzari buelta bat emateko beharra neukan eta lortu dut.

#### DATUAK

**Helbidea.** Paper Kalea, 1, Tolosa

**Telefono zenbakia.** 943 67 29 00

**Webgunea.** [Donbosco.eus](http://Donbosco.eus)

**Sare sozialak.**

Twitter:

[FPdonboscoLH](https://twitter.com/FPdonboscoLH)

Instagram:

[fpdonboscolh](https://www.instagram.com/fpdonboscolh)

Facebook:

[FPdonboscoLH](https://www.facebook.com/FPdonboscoLH)

Tik Tok:

[fpdonboscolh](https://www.tiktok.com/fpdonboscolh)

#### ERDI MAILAKO ZIKLOA

**Kimika instalazioko teknikaria**

• 2.000 ordu;  
1.620 ordu ikastolan eta  
380 ordu praktikan.

#### GOI MAILAKO ZIKLOA

**Kimika industrialeko teknikaria**

• 2.000 ordu;  
1.640 ordu ikastolan  
eta 360 ordu praktikan.

– Metodologia aktiboa erabiltzen da bi zikloetan, hau da, lan eremuan aurkitu daitekeen egoera erreal konplexu bati irtenbidea ematen laguntzen dute, talde batetako partaide aktibo moduan lan eginez.

#### ETENGABEKO FORMAKUNTZA

**Langileei begirako ikastaroak**

- Akreditazioak.
- Langileentzako profesionaltasun ziurtagiriaren ikastaro egiaztagarriak.
- Eskaintza libreko ikastaroak.

**Langabetuei begirako ikastaroak**

- Izurriteak kontrolatzeko zerbitzuak, 290 ordu.
- Hiri zein industria hondakinen kudeaketa, 270 ordu.

#### IKASLEEN ESKU JARRITAKO ZERBITZUAK

- Formazio duala.
- Ikasapresa eta Urrats Bat.
- Egonaldiak atzerrian: Erasmus + eta elkartrukeak.
- Praktikak, osasun zerbitzu publiko zein pribatuetan.
- Ibilbide profesionala eta lan poltsa.
- Agenda 2030.
- TKgune.
- Berrikuntza eta nazioartekotzea.



## NEKAZARITZARA GERTURATZEKO LEIHOA

Fraisoron nekazaritza-abeltzaintza, basogintza, natur ingurunearen kudeaketa, lorezaintza eta loregintza ikasteko aukera dago eta datorren ikasturtean bi ziklo berri ezarriko dituzte: nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueretako oinarrizko profesionala eta erdi mailako elikagaien eraldatzeko teknikaria. Eskaintza integrala dute.



**C**IFP Fraisoro Eskola LHIIk 124 urte baino gehiago daramatza Araba, Bizkai eta Gipuzkoako nekazaritzaren eta abeltzaintzaren zerbitzura. Hain zuzen, 1898ko irailaren 7an inauguratu zuten Casa Modelo Fraisoro izenekoa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekimenez, zientzia eta teknologia oinarri zituela, eta ordutik etengabeko garapena izan du, garai berrietara egokituz, eta ikasleak prestatuz. Lanbide Heziketako ikastetxea da eta bere lan kulturaren ezauzgarriak pertsonen garapena, talde lana, partaidetza, kooperazioa, berrikuntza, etengabeko hobekuntza, sektorea eta gizartearekiko konpromisoa eta ingurunearekiko errespetua dira.

Casa Modeloren helburu nagusia Gipuzkoako nekazaritza eta abeltzaintza indartzea zen, maila eta alderdi guztietan, eta 1904. urteaz geroztik, helburu nagusi horrekin batera, baserriarren prestakuntzaren eta trebakuntzaren ardura hartu zuen bere gain.

### DATUAK

**Helbidea.** Elbarrrena auzoa, 12, Zizurkil

**Telefono zenbakia.** 943 69 2162

**Webgunea.** [fraisoroeskola.eus](http://fraisoroeskola.eus)

**Emaila.** [fraisoro@fraisoroeskola.eus](mailto:fraisoro@fraisoroeskola.eus)

**Sare sozialak.**

Twitter, Facebook, Youtube eta

Instagram:

[fraisoroeskola](https://www.instagram.com/fraisoroeskola)

Helburu horiei utsi die egun arte, eta garatu ere egin ditu. Ibilbide luze horretan, eskolak aldaketa eta gorabehera ugari izan ditu, baina ezinbestean jardunik gabe geratu den aldi labur bat kenduta, etengabe aritu eta aritzen da lanean Gipuzkoako nekazaritza eta abeltzaintzaren alde. 1997tik 2012ra irailera arte, Mendikoi Sozietate Publikoa eta ondoren Itsasmendikoiren parte izan da eta 2012ko irailetik aurrera, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren barruan dago Fraisoro Eskola.

«NATURAREKIN HARREMANETAN EGOTEKO AUKERA EZIN HOBEA DA»

**L**ide Arregi Markuleta (Oñati, 2006) eta Aratz Arabaolaza Gorostizu-Orkaiztegi (Bergara, 2006) lorezaintza eta loregintzako, eta nekazaritza eta abeltzaintza ekoizpeneko erdi mailako zikloetako ikasleak dira, hurrenez hurren. Eskolan bertan egiten dituzte praktikak eta biak bizi dira eskolako barnetegian ikasturtean zehar. Apirilean enpresetan aritzeko aukera izango dute.

**Zergatik aukeratu zenuten Lanbide Heziketa egitea?**

**Arregi:** Beti izan dut gustuko naturarekin kontaktuan egotea. DBH bukatu nuenean, zerbait praktikoa aurkitzen hasi nintzen nire kabuz. Fraisoroko eskaintza ikustean, lorezaintzak erakarri ninduen eta beraz, ziklo hori aukeratu nuen.

**Arabaolaza:** Txikia nintzenetik animaliak, ortuko barazkiak, fruta-arbolak... gustatu izan zaizkit eta kalekumea naizenez eta mundu horrekin harremana edukitzeko aukera izan ez dudanez, aukera ezin hobea iruditu zitzaidan.

**Praktikak egin dituzue? Baliagarriak izan dira?**

**Arregi:** Eskolan bertan egin ditugu praktikak. Apiriletik aurrera enpresetan egiteko aukera izango dugu. Orain arteko praktikak baliagarriak eta entrenigarriak izan dira.

**Arabaolaza:** Bai, zorionez eskola honetan praktika asko egiten dira. Egunero izaten ditugu hiruzpalau ordu. Guztiz baliagarriak dira. Bi arlotako praktikak egiten dira eta iritsi nintzenetik asko ikasi dut.

**Zer esango zenukete Lanbide Heziketari buruz?**

**Arregi:** Aukera polita dela jende ezberdina



ezagutu eta lan praktikoak egiteko, teoriko ez gain asko ikasi daiteke.

**Arabaolaza:** Aukera ezin hobea dela, ikasle eta irakasleen artean sekulako harremana dago, teoriak gain praktika asko egiten dira gainera. Mundu honetan sartu nahi izanez gero, sekulako aukera da.

**Gustura zaudete egindako apustuarekin?**

**Arregi:** Oso gustura nago egindako apustuarekin eta ez naiz inoiz damutuko.

**Arabaolaza:** Bai, oso gustura nago, ez dauka zerikusirik DBHrekin eta askoz aproposagoa da nire iritzi, gehiago ikasten da.

**Gomendatuko al zenukete?**

**Arregi:** Bai, oso gomendagarria da.

**Arabaolaza:** Bai, guztiz gomendagarria da.

### NEKAZARITZA ARLOA

**Oinarrizko maila profesionala**

- **Eskaintza berria** Nekazaritzako eta Abeltzaintzako jarduerak -Nekazaritzako, abeltzaintzako, baratzegintzako, frutazaintzako, belarki-laboreetako, lore mozketako laboreetako, abeltzaintza ustiatzietako, jezteko eta elikagaien industriako langileak. Baita artzaintza eta ustiatzietako eta abeltzaintzako ibilgailuetako bioziden aplikatzaile ikasketak ere.

**Erdi mailako teknikari ikasketak**

- Lorezaintza eta loregintza teknikaria.
- Nekazaritza eta abeltzaintza ekoizpena.

**Goi mailako teknikari ikasketak**

- Basoa eta natura ingurunearen kudeaketa.

### ELIKAGAIEN INDUSTRIA

**Erdi mailako teknikaria**

- **Eskaintza berria** Elikagaiak eraldatzea; enpresa txikia, ertain edo handietan egiten dute lan, askotariko mailarekin, eta enpresa horien alderdi teknologikoan zein antolamenduan aritzen dira.

### LANERAKO PRESTAKUNTZA

- Profesionaltasun ziurtagiriak, pertsona aktiboen etengabeko prestakuntza eguneratzea, langabetuentzat ikastaroak, enpresen barne-prestaketa eta abar.

### LAN POLTSA

- Besteren kontura lana aurkitzea errazten dute, hau da, lana eskatzen duenaren eta eskaintzen duenaren arteko zubi lanak egiten dituzte.

### BARNETEGIA ETA JANGELA

- Astelehenetik ostirala arteko egonaldia egiteko egoitza dute eta baita jangela zerbitzua ere.

### GARRAIOA

- Astelehenetik ostirala arteko garraio zerbitzua Villabona-Zizurkil tren geltokira joan-etorriak egiteko.

### BESTELAKOAK

- D eredua linguistikoa, Dual formatua, Erasmus +, bekak, Global Training, Agenda 2030.



## ERAIKI, HEZI ETA GOZATZEKO

Tolosako Inmakulada Lanbide Ikastolak herri eta gizarte mailan gertatzen diren erronkei aurre egiteko erremintak eskaintzen dizkie ikasleei, lan munduak eta gizarteak dituen eskakizunei erantzuteko prestatzen baitituzte.



**E**redu berritzailea darabilte Tolosako Inmakulada Lanbide Ikastolan eta arrakastatsua izaten ari da. Horren erakusle ikastetxean prestatutako langileen lan merkaturatze tasa da, %85tik gorakoa delarik.

Lanbide ikastolak eskaintza zabala du erdi mailako eta goi mailako zikloak eskaintzen dituelarik. Erdi mailako zikloei dagokienez, hiru ziklo eskaintzen dituzte: mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta eskaintzeko teknikariena, erizaintza laguntzailearena eta farmazia zein parafarmazia-ko teknikariarena.

Goi mailako lau ziklo dituzte: gizarteratze goi-mailako teknikariarena, irudi diagnosikorako eta medikuntza nuklearreko goi-mailako teknikariarena, osasun dokumentazioko eta administrazioko goi mailako teknikariarena, eta datorren ikas-

turtean lehen aldiz eskainiko duten audiologia protesikoko zikloarena. Era berean, etengabeko formakuntzarako eskaintza zabala dute; langileei zuzendutako akreditazio ikastaroak, langabetuei begirakoak eta ikastolak berak diseinatutako ikastaroak. Behin zikloak bukatuta ikasleak ez dira bakarrik formazio teknikoarekin ateratzen, langileek behar dituzten konpetentziak lantzen dituztenez, talde lana, komunikaziorako konpetentzia edo ikasitakoari lotutako esperientziak ere izaten dituzte. «Horretarako ikastolaren egunerokoa aberasten duten testuinguru formatzaile ezberdinak diseinatzen ditugu: boluntario-tza ekimenak, elkarte eta eragile ezberdinekin elkarlanak eta proiektuak, komunitateari lotutako zerbitzuen eskaintza...».

Ikasleei hausnarketa kritikoa sustatzeko erremintak eskaintzea dute helburu: «Kudeaketa sistema aurreratuenetan oinarriturik, gure ikasleei, metodologia aktiboak erabiliz, prestakuntza berritzailea eskaintzen diegu, eredu propioan oinarrituz. Prestakuntza honek gure ikasleen garapen integrala eta gure gizarteak eta inguruko enpresek eskatzen dituzten konpetentzien eskuratzea ziurtatuko ditu».

Horren adibide dira orain arte garatutako hainbat proiektu, hala nola, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera garatutako Adinberri proiektua edo Tolosaldea Garatzen, Zutani eta Enplea-rekin batera abiarazitako Josi ta Josi ekimena.

### ERDI MAILAKO ZIKLOAK

#### Mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta egiteko teknikaria

• 2.000 ordu;  
1.620 ordu ikastolan eta 380 ordu praktketan.

#### Erizaintza laguntzailea

• 1.400 ordu; 1.000 ordu ikastolan eta 400 ordu enpresa batean.  
– Metodologia aktiboa erabiltzen da bi zikloetan, hau da, lan eremuko egoera erreal konplexu bati irtenbidea ematen laguntzen dute, talde batetako partaide aktibo moduan lan eginez.

#### Farmazia eta parafarmaziako teknikaria

• 2.000 ordu;  
1.620 ordu ikastolan eta 380 ordu praktketan.

### GOI MAILAKO ZIKLOAK

#### Gizarteratzeko teknikaria

• 2.000 ordu;  
1.640 ordu ikastolan eta 360 ordu praktketan.

#### Irudi diagnosirako eta medikuntza nuklearreko teknikaria

• 2.000 ordu;  
1.490 ordu ikastolan eta 510 ordu praktketan.

#### Osasun dokumentazioko eta administrazioko teknikaria

• 2.000 ordu;  
1.640 ordu ikastolan eta 360 ordu praktketan.  
– Metodologia aktiboa hiru zikloetan.

#### Audiologia protesikoko zikloa (eskaintza berria)

• 2.000 ordu; 1.640 ordu ikastolan eta 360 ordu praktketan.

### ETENGABEKO FORMAKUNTZA

#### Langileei begirako ikastaroak

• Akreditazioak  
**Langabetuentzat ikastaroak**  
• Osasun garraioa, 400 ordu.  
• Mendeko pertsonen gizarte erakundetan gizarte eta osasun arreta ematea, 370 ordu.  
• Pertsonen etxean gizarte eta osasun arreta ematea, 480 ordu.  
• Eraikin eta lokaletan gainazalak eta altzariak garbitzea, 150 ordu.  
• Ur instalazioetako sorospena, 290 ordu.

#### Inmakuladak diseinatutako ikastaroak

• Osasun arloko 20 orduko ikastaroak; zaintza paliatiboak, ospitaleko kudeaketa, sendagai motak, kirofanoa...



«LANBIDE HEZIKETAK ERREALITATEAREKIN LOTURA ESTUA DU»

**S**aioa Etxezarreta Larrañagak (Gabi-ria, 2003) mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta egiteko erdi mailako zikloa egin zuen lehenik, eta orain gizarteratzeko goi mailako teknikaria izateko ikasketak burutzen ari da. Ikastolan hainbat proiektuan aritu da boluntario moduan, suizidioari aurre egiteko Berpiztu taldean, esaterako.

#### Zergatik erabaki zenuen Lanbide Heziketara jotzea?

Ez nengoen ados DBHn landutako metodologiarekin, denok ez baitugu balio ikasgaiak buruz ikasi eta azterketan ikasitakoa erakusteko. Nik nahiago dut metodologia praktikoago bat. Errealitatearekin lotura duenarekin hobeto moldatzen naiz eta horregatik erabaki nuen Lanbide Heziketara jotzea. Nire ustez denok pasa beharko genuke Lanbide Heziketara batetik.

#### Zergatik erabaki zenuen erdi mailako zikloa egin ostean, goi mailakoa egitea?

Bi ikasketek arlo berdina jorratzen dute, lotura zuzena dute. Arretari lotutako zikloan higiena lantzen da batez ere, eta gizartean jarduerak eta dinamizatze lanak jorratzen dira gehiago. Ate gehiago irekitzen dira, nire ustez, goi mailakoan, nire kasuan behintzat, eta oso kontentu nago.

#### Kroaziako hiriburuan, Zagreben, zaude praktikak egiten, zer moduzko esperientzia izaten ari da?

Eramus + programaren barruan etorri nintzen Zagrebera, eta oso gustura nago. Esperientzia oso berezia eta aberasgarria izaten ari da. Ingelesa praktikatzeko aukera ere eman dit. Desgaitasun intelektuala duten pertsonak dauden eguneko zentro batean nago praktketan eta asko ari naiz ikasten.

### DATUAK

#### Helbidea.

Kondeaneko Aldapa, 5, Tolosa

#### Telefono zenbakia.

943 67 36 29

#### Webgunea.

[Inmakuladatolosa.eus](http://Inmakuladatolosa.eus)

#### Sare sozialak.

Twitter: [Inmakuladalkast](https://twitter.com/Inmakuladalkast)

Instagram: [Inmakulada\\_tolosa](https://www.instagram.com/Inmakulada_tolosa)

Youtube: [Inmakuladaikastetxea](https://www.youtube.com/Inmakuladaikastetxea)

LinkedIn:

[Tolosako-inmakulada-lanbide-ikastola](https://www.linkedin.com/company/Tolosako-inmakulada-lanbide-ikastola)



## LAN MUNDURA SALTO EGITEKO

Oinarrizko Lanbide Heziketa zentroa da Tolosako Peñascal Kooperatiba. Ikasleek etengabeko harremana dute lan munduarekin bai soldadurari lotuta eta baita ostalaritzari dagokionez ere.

**H**ezi landuz da Peñascal Kooperatibaren leloa. Hori baita euren jardunaren helburu nagusia; lan eginaz ikasi eta hezi ahal izatea. Hasierako Lanbide Prestakuntza Programa dute, eta horrela DBHko bigarren maila egin duten 15 eta 17 urte arteko gazteek eta DBHko graduaturik ez duten 17 urte gorakoek aurrera egin ahal izateko beharrezkoa den ikasketa prozesua burutzen dute. Horrekin batera soldadura eta sukaldaritza zein ostalaritzan zerbitzu ematea da euren eskaintza. Ikasketa horiek egiten dituzten ikasle guztiak bi titulu lortzen dituzte; oinarrizko LH titulua eta DBHko graduatu titulua. Peñascalako abantaila nagusia da ikasleek etengabeko harremana dutela lan munduarekin tailerren bidez. Eskola teorikoak jasotzen dituzte, bai soldaduran eta baita sukaldaritza eta zerbitzuan ere, eta ikasitakoa praktikan jartzeko aukera dute. Soldaduran ikasitakoa praktikan jar-



tzeko Tolosako Usabal industrialdean bertan dute aukera, baina sukaldaritza eta zerbitzurako Leaburuko Ostataua ere badute. Lehenengo mailako ikasleak hamabost egunean behin txandakatzen dira Leaburuko Ostatura igoz, eta horrela prestatzen dira lehen mailako 3. hiruilekoa egiteko. Bigarren mailako ikasurte osoan zehar benetakako lan giroan prestatzen dira Leaburu Ostaturako tabernan, sukaldean eta jangelan arituz.

### DATUAK

**Helbidea.** Usabal industrialdea, 5, Tolosa

**Telefono zenbakia.** 943 67 61 61

**Webgunea.** Grupopenascal.com

**Emaila.** info@grupopenascal.com

**Sare sozialak.**

Twitter eta Facebook:

Penascalkoop

### SOLDADURA

Soldadura elektrikoaz eta MIG-MAG soldaduraz gain, makina ezberdinen erabilpenean eta planoen irakurketan trebatzeko aukera.

### SUKALDARITZA ETA ZERBITZUA

Teoria eta praktika Usabalen bertan, eta Leaburuko Ostatuan ondoren.

- Bi eskaintzak 2.000 ordukoak dira; 1.740 ikastetxean eta 260 praktikan.

### BESTELAKOAK

Usabalen galdaragintza eta Leaburun Ostataua. Lanbide eta Sendotuko ikastaroak.

Lanbide heziketako oinarrizko ikastaroez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzartuta, kalteberatasun egoeran dauden pertsonen begirako PAE programa dute, eguneko zentroa eta gizarteratzeko etxebizitza lagundua ere. Bestalde, Eusko Jaurlaritzarekin hitzartuta, lan orientazioa eskaintzen dute eta baita bizitza autonomo batera igarotzeko prozesuan lagunduko duen familia laguntzako, sarerik ez duten gazteentzat. Azkenik, Tolosaldeko udalekin hitzartuta, etxez etxeko laguntza programa dute abian, mendekotasuna duten pertsonentzako materialaren mailegua eskainiz. Laneratzeko enpresak: Laiatzen eta Sukalbide.

**M**okhtar Reghiouk 15 urterekin ihes egin zuen bere herrialdetik. Adingabea zela iritsi zen Europara eta Sevillako adingabeen zentro batera eraman zuten zuzenean. Beste bi zentroatik igaro zen, Gipuzkoara iritsi arte.

Adingabeen zentroan, ikastaro bat egin behar zuela esan zioten, eta hezitzaileek Peñascalera Oinarrizko LH egitera joateko gomendatu zioten. 2016ko maiatzean iritsi zen Peñascalera eta ikasturtea hasita zegoenez, ibilbide-programa batean sartu zen, eskoletan matrikulatuta egon gabe zentroa sartzeko aukera izan zezan.

Reghiouk 2016-2017 eta 2017-2018 ikasturteetan Ostalaritzako Oinarrizko Lanbide Heziketan aritzea erabaki zuen, soldadura baino gehiago gustatzen zitzaiolako. «Gauza asko ikasi nituen», esan du. Izan ere, Usabalen teoria eta hizkuntza ikasteko aukera izan zuen eta baita sukaldeko lanak egiteko ere. Leaburuko Ostatura igotzen hasteko aukera izan zuen eta hasieran sukaldean bakarrik aritu nahi zuen, «ez nintzen oso eroso sentitzen tabernako barran: hizkuntza, erraztasuna...», baina jatetxeko bezeroekin egunero aritzeak lagundio ziola dio. «Ostatuan txandaka ikasten dugu; elikagaien harrera, gela hotza, lehen platerak, plater nagusiak, postreak, harraska, jangela eta taberna... horrela denetik ikasiz joan nintzen eta lotsa edo beldurra kenduz joan nintzen. Pixkanaka konturatu nintzen barrera gero eta gehiago gustatzen zitzaidalda eta, jendearekin harremana izatea gustuko nuela, euskara entzutea maite nuela... Egia

## AUTOBUS BATEN AZPIAN ETORTZETIK, ZERBITZARIEN BURUIZATERA



esan nire ustez bezeroek eskertzen dute hori».

Oinarrizko Lanbide Heziketa amaitu eta praktikak Leaburuko Ostatuan egin zituen eta horrek aukera eman zion Servicios de Hostelería de Peñascal-en kontratu bat izateko. Hiru urtez Leaburuko Ostatuan aritu zen lanean, barran zehazki, eta denbora horretan Peñascalako bidez lortu zuen eskualdean ostatu hartzea.

Leaburuko Ostatuan lanean ari zela jaso

zuen Tolosako Fronton jatetxeko txurrodendan lan egiteko proposamena eta Fronton-eko eraberritze lanak bukatu bezain pronto hasi zen bertan lanean. Hor jarraitzen du; «hemen oso harro nago nire lanarekin eta jendearekin».

Aukerak aprobetxatu egin behar direla uste du Reghiouk. «Nire kasuan Oinarrizko Lanbide Heziketa ikasteak eta nik burututako lanak eraman naute nagoen tokira», esan du.



## OFIZIOA IKASTEKO AUKERA

Erdi eta goi mailako ziklo eskaintza zabala du Tolosaldeko Lanbide Heziketa Institutuak. Lan mundura salto egiteko hamaika aukera ditu eta %94ko lan merkaturatze tasa. Ikasleen jarraipena egiten dute behin ikasketak bukatu dituztenean.



**T**olosaldea LHII-ren jatorria XX. mende hasierako *Escuela de Artes y Oficios* zelakoan dago, geroago Lan Eskola moduan jarraitu zuen eta 1955etik aurrera Maestria Eskola moduan. Santa Luzia auzoko eraikuntza berrira mugitzeak eta irakaskuntza ertainetako institutu bihurtzeak, instalazio hobek eta garrantzi handiagoa ekarri zizkion ikastetxeari. Eta 80ko hamarkadaren erditik aurrera hasi zen enpresa mundura gerturatzen.

1998. urtean hartu zuen gaur egun duen indarra eta ordutik dago Lanbide Heziketako ikastetxe integralen sarean. Hainbat pauso eman ondoren 2015ean izendatu zuen Hezkuntza Sailak Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratu. Izaera juridiko berri honek, autonomia gehiago eta erreferentzia-ikastetxea bihurtzea ekarri zion. Ingaruko enprekin, administrazio publikoekin eta LANBIDE euskal enplegu zerbitzuarekin du harremana, eta horrek prestatuko ikasleak lan munduratzeko aukera zabaltzen dio.

«LAN MUNDUAN DAUDEN ERRONKEI AURRE EGITEN ERAKUTSI DIDATE»

**E**ric Sanchez Barrocal (Tolosa, 2000) administrazio eta finantzen goi mailako zikloa egiten ari da, eta aurretik sareko informazio eta sistemen administrazio zikloa egin zuen.

**Zergatik erabaki zenuen Lanbide Heziketara jotzea?**

Ez nuen oso argi, unibertsitateko ziklo ezberdinek ez zituzten nire nahiak asetzen. Hasiera batean lau urteko ibilbidea egitea gehiegi iruditzen zitzaidan gainera. Oso gustuko dut informatika eta horri lotutako ikasketek bi urtekoak izateak ere izan zuen eragina erabakian. Lan mundura gerturaztea ere oso interesgarria iruditzen zitzaidan.

**Informatika zikloa egin zenuen eta orain administrazio zikloa egiten ari zara, nolako izan da ibilbidea?**

Informatikako zikloa egin nuenean Dual programan sartzea erabaki nuen eta bigarren ikasturtean ikasketak eta lana uztartu nituen. Behin zikloa amaituta enpresa horretan lanean hasteko aukera izan nuen. Enpresa txiki bat da eta pandemia dela eta egin zituzten murrizketen ondorioz, nire burua kalean ikusi nuen egun batetik bestera. Momentu hori hausnarketarako erabili nuen eta nire lanbideari bide berri bat irekitzeko asmoz administrazio zikloa egitea erabaki nuen.

**Eskolan ikasitakoa baliagarria izan al da lan munduan?**

Oso oinarri ona jaso nuen eskolan, bai teknikoki eta baita zeharkako gaitasunei begi-



ra ere. Lan munduan aurkitu daitezkeen erronkak landu ditugu eskolan ETHAZI eredu metodologikoaren bidez eta asko lagundu didate. Eredua oso lagungarria izan da teknikoki, baina bestelako arlo batzuk lantzeko aukera ere izan dut, hala nola, autonomia landu dut, lan taldean aritzen, birziklatzeari buruz aritu gara, ikasten ikasi dut... Informatikari lotuta hainbat sektoretan lantzen diren programak, teknologia, protokoloak... landu ditut ere.

**Baliagarria izan al da Dual programan egindako esperientzia?**

Enpresak ni ezagutzeko aukera izan zuen, eta nik lan munduan zein ibilbide egiteko aukera dagoen ikusi nuen, oso pozik nago esperientziarekin.

**Zer esango zenuke Lanbide Heziketari buruz?**

Ondo pentsatuta dagoen hezkuntza sistema bat dela iruditzen zait eta lan mundura bideratuta dagoela. Eskolan egindako erronkek, errealitate gertu daudenez, asko laguntzen dute ikaskuntza prozesuan.

**Gomendatuko al zenuke?**

Bai, dudarik gabe. Ni bezala, unibertsitateko bideek ez badizute asetzen eta bide laburrago bat aukeratu nahi izanez gero bide paregabea da. Bestalde, ni bezala, lan mundura pausoa eman nahi duenarentzat ere bide egokia dela iruditzen zait. Orain lehenengo ikasturtean ere hiru asteko enpresa esperientzia bat izateko aukera dago eta horrek ere laguntzen du. Niri administrazio munduan murgiltzea eskainiko dit, eta gustuko dudana ala ez ikusi ahal izango dut. Enprekin harreman estua dago ikasten den bitartean eta oso baliagarria da.

### DATUAK

**Helbidea.** Santa Luzia, 17, Tolosa  
**Telefono zenbakia.** 943 65 11 47  
**Webgunea.** [Tolosaldealh.eus](http://Tolosaldealh.eus)

### Sare sozialak.

Youtube eta Twitter: [TolosaldeaLH](https://www.youtube.com/TolosaldeaLH)  
Facebook: [tolosaldea](https://www.facebook.com/tolosaldea)  
Instagram: [tolosidealhii](https://www.instagram.com/tolosidealhii)

## ZIKLOEN LAN IRTEERAK

### ERDI MAILAKO ZIKLOAK

#### Instalazio elektriko eta automatikoak

- Eraikuntzako industria makinaren instalatzaile elektrikoa.
- Eraikuntzako industria makinaren mantentze elektrikoa.
- Sistema domotikoetako eta telekomunikazioen instalatzaile eta mantentzailea.
- Eguzki-energia fotovoltaikoko instalazioen muntatzailea.

#### Soldadura eta galdaragintza

- Soldatzailea.
- Txapista eta galdaragilea.
- Metal eraikuntzetako muntatzailea.

#### Mekanizazioa

- Tornularia
- Fresatzailea.
- CNCKo teknikaria.

### Mikroinformatika sistemak

- Ekipo muntatzaile, konpontzailea eta saltzailea.
- Sare muntatzailea eta mantentzailea.
- Telelaguntzako operadorea.

### Merkataritza jarduerak

- Saltzailea.
- Merkataritzako orientatzailea.
- Telesaltzailea eta urrutiko salmenta.
- Bezeroentzako informazioa eta arreta.
- Kutxazaina eta hornitzailea.
- Biltegien logistikako teknikaria.

### Naturguneako gidaria

- Jolas jarduera fisikoak eta kirol jardueretarako diseinatzailea, antolatzailea eta natura ingurune gidaria (zaldi, bizikleta, mendi ibilbideak, eta elurtutako eta ur-ingurune ibilbideak).
- Eskola esparruko jardueren monitorea.
- Haurren eta gazteen aisialdirako monitorea.
- Soroslea.

### GOI MAILAKO ZIKLOAK

#### Eraikuntza Metalikoak

- Galdaragintza teknikaria eta arduraduna.
- Metal eraikuntzetako teknikaria eta arduraduna.
- Metal eraikuntzetako muntatzailea eta arduraduna.

#### Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa

- Mekanizazio teknikaria.
- CNCKo programatzailea.
- Produkzioaren programatzailea.

#### Automatizazio eta robotika industrialia

- Robot industrialen programatzailea.
- Automatizazio industrial muntatzailea eta mantentze arduraduna.

#### Mekatronika industrialia

- Makineriako eta industria tresneriako muntatzaile eta mantentze arduraduna.

#### Instalazio termiko eta fluidodunen mantentzea

- Hotz-bero instalakuntza industrialen muntatzaile eta mantentze arduraduna.
- Hotz-bero etxe instalakuntzen muntatzaile eta mantentzailea.

#### Sareko informatika sistemen administrazioa

- Informatika arduraduna.
- Sistemen administrazio teknikaria.
- Internet zerbitzuetako teknikaria.

#### Administrazio eta finantzak

- Bulegoko administraria.
- Merkataritza administraria.
- Finantza administraria.

#### Egokitzapen fisikoa

- Fitness monitorea.
- Kiroldegian egiten diren edozein ekintzen monitorea.
- Soroslea.

# VIII. Lanbide Heziketa Azoka

## LANBIDE HEZIKETA BERTATIK BERTARA

VIII. Lanbide Heziketa Azoka hartuko du Tolosako Trianguloak, bihar, hilak 24, 09:00etatik 14:00etara. Lehen Hezkuntzako eta Batxilergoko 450 ikasle inguru elkartuko dira eta Tolosaldeko Lanbide Heziketako bost ikastetxeetako ordezkariak izango dira bertan. Eskoletako zikloen eta eskaintzaren berri emango dute, eta horrekin batera ikasketei lotutako saio praktikoak eskainiko dituzte. Azoka irekia da eta Don Bosco, Fraisoro, Inmakulada, Peñascal eta Tolosaldea LH Institutuko ordezkariak herritar guztiak gonbidatu dituzte azokara gerturatzerara eskualdeak duen Lanbide Heziketa eskaintzaren berri bertatik bertara jaso dezaten.



### OSTEGUNA, 2023KO MARTXOAK 23

#### Argitaratzailea:

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM

**Lege Gordailua:** SS-1323-2013

#### Koordinatzailea:

Rebeka Calvo Gonzalez.

**Kudeatzailea:** Iban Urdapilleta Alkizalete.

**Egoitza:** San Esteban, 20, Tolosa.

**Telefonoa:** 943 65 56 95.

**E-posta:** ataria@ataria.eus

**Publizitatea:** 661678 818.publi@ataria.eus

**Tolosa:** 687 410 082. tolosa@ataria.eus

**Villabona-Aiztondo:** 687 410 022.

villabona-aiztondo@ataria.eus

**Anoetalea:** 687 410 022.

anoetaldea@ataria.eus

**Ibarraldea:** 687 410 118.

ibarraldea@ataria.eus

**Alegialdea:** 687 410 034.

alegialdea@ataria.eus

**Kirolak:** 673 06 11 32. kirolak@ataria.eus

**Bezero arretra zerbitzua:** 943 30 43 46



## Ataria.eus

**ATARIA IRRATIA**  
107.6 FM

**Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:**

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

**Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:**

